

Añorga

Jaunartze garaia

Datozen bi igandeetan lehen jaunartzeak egingo dira auzoan. Aurten bost haurrek egingo dute jaunartzea: hiru Añorgan eta bi Añorga-Txikin.

Hilaren 18an, Jon Basurtok, Leire Leonetek eta Xabier Matxainek jasoko dute lehen jaunartzea Añorgako Karmengo Ama elizan. Hurrengo igandeetan, hilak 25, Añorga-Txikiko Jesukristo Askatzailearen elizan, Ainhoa Arizeta eta Ander Sanz izango dira lehen jaunartzea egingo dutenak. Ohi bezala, bi elizetako ospakizunak euskaraz egingo dira.

Aurreko urteetan aurten baino neska-mutil gehiagok egin zuten jaunartzea —iaz,

esaterako, 16 lagunek jaso zuten—. Dena dela, haur kopuruak behera egin izana *"belaualdi kontua besterik ez da"*, esan digute Arantza Arrieta eta Kontxi Loidi katekistek. Irakasleok gogorarazi digutenez, *"iaz Añorgako elizan zortzi haur izan genituen; aurten hiru besterik ez ditugu, baina datorren urtean bederatzi neska-mutilek egingo dute jaunartzea. Izan dira, halaber, haurrik ez zegoelako, ospakizunik gabeko urteak"*. Bestalde, Arantzak eta Kontxiak au-



rerratu digutenez, Añorga-Txikin 14 haurrekin ari dira lanean datorren urtean jaunartzea egin dezaten. Hori dela eta, ziur asko 2004an Añorga Txikin bi igande beharko dituzte lehen jaunartzeak egiteko.

Aurtengo ospakizunak 12.00etan hasiko dira eta ohitura zaharrari eutsiz, jaunartzea hartu behar duten neska-mutilak frontoitik elizara prozesioan joango dira, Arkaitz taldeko dantzari gaztetxoekin.

Intxaurrondo



Egunkariaren aldeko mahaiak nonahi ikus daitezke.

Akzio salmenta martxan

Egunkariaren aldeko Intxaurrondoko batzordea euskarazko egunkari berria sortzeko akzioak saltzen hasi da. Batzordea, batik bat, ikastetxeetan, elkarteetan edota tabernetan ahalik eta akzio gehien saltzen saiatuko da.

Donostiako beste hainbat auzotako herri batzordeek bezala, Intxaurrondokoak, martxoan eta apirilean, zenbait ekintza egin zituen Egunkariaren alde. Igande gehienetan, adibidez, mahaia jarri zuen Sagastieder plazan edo Intxaurrondo Zaharreko parkean, eta bertan, Egunkariako kamisetak, pinak eta pizgailuak saldu zituzten. Herri batzordeko kide Arratek esan digunez, *"pozik gaude. Ez ditugu pizgailu asko saldu, baina kamisetak, esaterako, ia-ia agortu egin dira"*. Bes-

talde, apirila hasieran Kontseiluko idazkari nagusi Xabier Mendigurenek eta Egunkariako langile Mikel Arrietak hitzaldia eman zuten auzoan, eta arrakastatsua izan zen.

Astelehenean Larrotxenen

Joan den astean, euskarazko egunkari berriaren aldeko kanpaina martxan jarri zen. Kanpainaren helburua 50 eta 300 euroko akzioak salduz, bost milioi euro lortzea da, horietatik 300.000 Donostian. Horren ildotik, joan den astearte-

an, herri batzordeen koordinatzaile Jonpa Albisu Intxaurrondoko herri batzordeko kideekin elkartu zen eta abian jarritako kanpaina izan zuten hizpide. Datozen asteotan herri batzordeko kideek akzio salmenta ikastetxeetan, elkarteetan, tabernetan eta koadrilen artean bultzatuko dute. Nabarmen-tzekoa da, halaber, astelehenean, hilak 19, herri batzordeak, Lagunekin Kantari egitasmoaren haritik, mahaia jarriko duela Larrotxene kultur etxe aurrean 20.30ean; bertan akzioak erosi ahal izango dira.